

Eskiula

Aurkibidea

Udalerria: Eskiula

Sarrera



Zuberoako mugetatik at Bearnon dagoen herri euskalduna. Muga administratiboz kanpo dagoen herri euskaldun bakarra. Barkoxe du auzokide 7 km-ra. Zuberoako lurraldetzat hartzen denean, Basaburüa eskualdean kokatzen da. Eskiulako herritar gehienak euskaraz mintzatzen dira, zubereraz, hain zuzen. Horrez gain, frantsesa oso hedatua dago, eta bearnes hiztunak ere badira.

- **Biztanleak:** 537
- **Euskaldunak:** %62,85

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **5**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **5**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika

Hizlariak

Rene Errezaret (1956)



Administrazioz Biarno baina hizkuntzaz euskalduna den Eskiulan sortu zen eta bertan bizi izan da. San Martingo Harria eta Gourette-ko eski estazioentzat promozio lanetan jarduten zuen elkarriketa egin zitzaionean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskiula, Bearnoko herri euskalduna (EKL-001/002)

Izen abizenak. Eskiulatarra da Rene. Eskiulan Zuberoako beste herri askotan baino euskara gehiago egiten da. Gazteek ere egiten dute. Dantzan eta pilotan ere bai. Egiazki euskaldunak dira.

2. Eskiula, oso leku ederra bizitzeko (EKL-001/003)

400 biztanle ditu Eskiulak. Herriko festak oso ederrak izaten dira. Lehenago Euskal Herria urrunago heltzen omen zen.

3. Ehiztari elkartearen presidenta (EKL-001/004)

Rene herriko ehiztarien presidenta da. Basurdea, erbia, usoa, azeria... harrapakin nagusiak. Ez dago kotorik. Hondoak ere badira basoan. Udaberriko zizak ('buxiguak'), gero eta gutxiago daude.

4. Ardoa egiten zen Eskiulan (EKL-001/006)

Sagardoa ez, baina etxerako ardoa egiten zen lehenago. Ez omen zen ardo ona. Dolarearen inguruko zenbait izen ematen ditu.

5. Eski-estazioen promozio lanetan Hegoaldean (EKL-001/007)

Gourette eta Pierre Saint Martin-Arette eski estazioen promozioan jarduten du Hegoaldean, eskoletan bereziki. Euskaldun asko ibiltzen da Areten. Fondoko eskirako elkarte bat ere egin dute sei estazioren artean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com